



areatza



Vivienda:
El problema a resolver

Se han establecido una serie de actuaciones para atajar la problemática. (pág. 4)

Elkarrizketa:
Eusebio Larrazabal,
Zeanuriko Alkatea
(6. orr.)

El Registro Municipal de Solares, en marcha
(pág. 9)

Arratiako Musika Eskola
(10. orr.)



Elkarrizketa:
Karmentxu Amuriza

"Erakutsi nahi dot emakumeok nahi dogun guztia egiteko prest gagozala"
(8. orr.)

Telefonoak



Udaletxea	94-673.90.10
Parketxea	94-673.92.79
Gorbeialde Elkartea	94-631.55.25
Arratiako Udalen Mankomunitatea	94-673.60.88
S.O.S Deiak	112
Osakidetza	94-410.00.00
Galdakaoko ospitalea	94-400.70.00
Botika	94-673.93.22
Autobusak	
■ Bizkaibus	94-475.82.00/902-22.22.65
■ La Unión	94-427.11.11

Botikak (guardiazkoak)



20-26 enero / 17-23 febrero
TRAVER NICOLAU, EDUARDO J.A. Agirrerren Enparantza, s/n Tlfno:94-631.39.50 • BEDIA
27 enero-2 febrero / 10-16 marzo
VARGAS CORTA, Fco. JAVIER B° Arraibi, 11 Tlfno:94-631.30.18 • LEMOA
3-9 febrero / 3-9 marzo / 17-23 marzo
ZAMALLOA ASUA, M ^a ARANTZA Askatasuna Kalea, 15 Tlfno:94-673.93.22 • AREATZA
10-16 febrero / 24-30 marzo
BADIOLA URIARTE, MIREN NEKANE Herriko Plaza, 7 Tlfno:94-631.73.11 • ARTEA
24 febrero-2 marzo
CORTAZAR ALDAPE, M ^a INMACULADA Lehendakari Agirre, 27 Tlfno:94-673.61.09 • IGORRE

Autobus ordutegiak • Horarios de autobús



Bizkaibus

Zeanuri-Lemoa-Galdakaoko ospitalea-Bilbo

Lanegunetan/Laborables: (lehenengoa/inicio) (ordu erdiro/cada media hora)	05,00etan 05,15etatik 06,45etara 06,45etatik 21,45etara
(orduro/cada hora)	
Zapatuetan/Sábados: (lehenengoa/inicio)	05,00etan
(ordu/cada hora)	05,45etatik 21,45etara
Jaiegunetan/Festivos (ordu/cada hora)	07,45etatik 21,45etara

Bilbo- Galdakaoko ospitalea- Zeanuri

Egunero/Diario (orduro/cada hora)	06,15etatik 21,15etara
--------------------------------------	------------------------

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

* (Ubidetik irteerak/Salidas desde Ubide) Lanegunetan eta zapatuetan/Laborables y sábados (bi orduro/cada dos horas)	06,50etatik 20,50etara
Jaiegunetan (bi orduro/cada dos horas)	08,50etatik 20,50etara
* (Otxandiotik irteerak/Salidas desde Otxandio) Lanegunetan eta zapatuetan/Laborables y sábados (ordu/cada hora)	07,00etatik 21,00etara
Jaiegunetan (bi orduro/cada dos horas)	09,00etatik 21,00etara

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Egunero/Diario *Otxandiora/a Otxandio *Ubidera/a Ubide	06,45etatik 20,45etara (ordu/cada hora) (bi orduro/cada dos horas)
--	--

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (autopistatik/por autopista)

Lanegunetan/Laborables (ordu/cada hora) Zapatu eta jaiegunetan/Sábados y festivos	07,15etatik 21,15etara (ez dabil/no circula)
--	---

Bilbo- Lemoa- Zeanuri (autopistatik/por autopista)

Lanegunetan/Laborables Zapatu eta jaiegunetan/Sábados y festivos	(ordu/cada hora) 06,45etatik 20,45etara (ez dabil/no circula)
---	--

E d i t o r i a l a

Etxebizitzaren arazoa Areatzan dauzkagun arazoetik larrienera bat da. Areatza Lantzen argitalpenaren 2. zenbaki honetan gure higiezinaren merkaturaren erakusten dan gabezia gutxitzeko Udalak martxan dituan ekintzetako batzuk zehaztuko dira. Dana dala, Udala ez da bakarria ardura daukana gai honetan.

Inguruko udalerrien aldean, Areatzak lur gitxi dauka eregiteko. Hori dala eta, ahalik eta gehien aprobetxatu behar doguz daukaguzan aukerak. Hemendik gixira, Udalak jentearen aurrean ipiniko dau Arau Subsidiarioen eta Urigune Historikoko Plan Bereziaren berrazterketa. Ondorioz, 220 etxebizitza baino gehiago gehituko jakoz eregi daitekezan etxebizitzaren kopuruari. Halandabe, ez da nahikoa.

Horretaz guztiaz gainera, partikularrek be parte hartu behar dabe, erabilgarri itxi behar dabe lurra eta espekulatzeko asmo barik saldu behar dabe. Era berean, behar-beharrezkoak dira Areatzan inbertitzen ausartuko diran etxebizitza-sustatzaileak.

Gaur bertan 50 etxebizitza barri eregiten hasi leitekez eta gaur egun, hutsik eta bizitzeko oso egoera txarrean dagozan beste 50 etxebizitza zaharberritzen hasi geintekoz, baina etxebizitza horreek guztiak ez dira merkatura urteten jabeek ez dabelako gura etxebizitzok konpondu, ez alokatu, ez saldu. Zeregin urbanistikoetan lagundu behar dabe, izan be, jabe horreek hartzen ditue udalaren ekintza urbanistikoak sortutako gainbalioak.

Jabeen pasibitatea ikusita, Udalak modu bitara jardungo dau. Batetik, lurra erosiko ditu sustapen publikoko etxebizitzak eregiteko (Karpó); eta, bestetik, Orubeen Erregistroa sortuko dau eta bere esku dagoana egingo dau espekulazioa nahiz lurren eta etxebizitzaren prezio altua saihesteko.

Areatza herri bikaina da bertan biziteko. Den-denok egin behar dogu ahalegina aurrerantzean be holakoxea izan daiten. Geure esku dago.

Uno de los mayores problemas al que nos enfrentamos en Areatza es de la vivienda. Este número 2 de Areatza Lantzen detalla algunas actuaciones que está llevando a cabo el Ayuntamiento para tratar de paliar las carencias que refleja nuestro mercado inmobiliario. Sin embargo, no sólo el Ayuntamiento debe de involucrarse en esta tarea.



Areatza dispone de poco suelo donde poder construir en comparación con los municipios de nuestro entorno y ante esta escasez debemos apurar al máximo nuestras posibilidades. En breve, el Ayuntamiento llevará a información pública la revisión que está haciendo de las Normas Subsidiarias y del Plan Especial del Casco Histórico. Esto va a suponer que el número de viviendas edificables se incremente

en más de 220. Pero todo esto no basta. Es necesaria la cooperación de los particulares para que pongan el suelo disponible y lo vendan sin ánimo especulativo, así como son necesarios los promotores de vivienda, para que arriesguen y se animen a invertir en Areatza.

Hoy mismo podría ponerse en marcha la construcción de más de 50 viviendas nuevas y se podrían rehabilitar otras 50 que se encuentran vacías y en un estado lamentable, pero estas no salen al mercado porque los propietarios no quieren arreglarlas, ni alquilarlas, ni venderlas. Es absolutamente necesario que colaboraren en el cumplimiento de los deberes urbanísticos, ya que son ellos los que perciben las plusvalías generadas por la acción urbanística municipal.

Ante esta pasividad el Ayuntamiento va a actuar de dos maneras. Primero, construyendo viviendas de promoción pública (Karpó) y, segundo, poniendo en marcha el Registro de Solares, haciendo lo posible para evitar la especulación y la carestía del suelo y la vivienda.

Areatza es un pueblo excepcional para vivir y todos debemos colaborar para que lo pueda seguir siendo en el futuro. De nosotros depende.

www.ariatza.net

Herritarren buzoi irekia • Buzón abierto a los ciudadanos
ariatzalantzen@hotmail.com

Argitaratzailea/Edita:

Areatzako Udala
 Gudarién plaza, 7 • 48143 Areatza
 tfnoa.: 94-673.90.10 faxa: 94-631.71.65
 e-mail: ariatzalantzen@hotmail.com

Erredakzioa/Redacción:

MBN Comunicación

Egilea/Realización:

MBN Comunicación

Inprimategia/Impresión:

Gráficas Arratia

Ale kopurua/Tirada:

600 ale/ejemplares

Se han establecido una serie de actuaciones para atajar la problemática

Vivienda: el problema a resolver

La problemática en torno a la vivienda en Areatza ha ido creciendo proporcionalmente a la demanda existente y a la falta de renovación en el mercado inmobiliario, es decir, a la escasez de suelo para construir y a la no puesta en circulación de vivienda usada. Ante este panorama, el Ayuntamiento ha puesto en

pasará a gestionarse desde el ámbito municipal y se producirá una mejora sustancial de infraestructuras básicas, como el agua, las telecomunicaciones y el gas. El segundo paso de estas actuaciones públicas es la entrega inmediata de 12 viviendas sociales, de las que 6 serán propiedad del



Areatza ya dispone de 12 viviendas sociales en el Hospital.

Si no se edifica en los plazos marcados se expropiará el solar

marcha una serie de actuaciones públicas. Como primer paso, se está procediendo a la revisión de las Normas Subsidiarias y del PERI. Con ello se incrementará en 220 el número de viviendas a construir y se facilitará la gestión de las Unidades de Actuación

Ayuntamiento para su cesión en régimen de alquiler. La tercera actuación contempla la construcción de 45 viviendas de Promoción Pública en Karpo en terrenos recientemente comprados por el Ayuntamiento. En este sentido, se cuenta ya con el visto bueno de la

Se necesitan acciones públicas y privadas en el tema vivienda

Urbanística vigentes. Asimismo, la carretera, hoy de responsabilidad foral,

Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco y en Febrero se contratará

el plan parcial y el proyecto de reparcelación, con lo que se espera que la construcción de estos pisos comience en un año. El cuarto paso ha sido la creación del Registro de Solares (ver página 9). Mediante este Registro, solares que se hallen vacíos o edificaciones en ruina podrán ser expropiados o vendidos con carácter forzoso en subasta pública si no se construye o rehabilita

en los plazos marcados. Una quinta actuación ha sido la exención del Impuesto de Construcciones para actuaciones de rehabilitación en el Casco Histórico. Y la sexta y última ha sido la de la creación de la Sociedad Pública Areatza 1338, S.L., que, entre otras cosas, tramitará las ayudas que el Gobierno Vasco ofrece para las Áreas de Rehabilitación Integrada y que, en función de los






ingresos del solicitante, pueden llegar al 30 % de la inversión (rehabilitación total de la vivienda, fachadas, cubiertas, incorporación de ascensor, etc.).

Pero, además de las actuaciones públicas, también existen otras de carácter privado, como la llamada Unidad de Actuación-3, frente a la Residencia Bolívar. Si los propietarios, entre ellos el Ayuntamiento, se ponen de acuerdo se podrá llevar a cabo la construcción de 12 viviendas unifamiliares adosadas y de 12 viviendas en bloque.

Otra actuación privada es la de Iturrimorro o Sector III, con la edificación de 58 viviendas unifamiliares, bifamiliares y adosadas. Se ha aprobado inicialmente el proyecto de reparcelación y está ya redactado el de urbanización. Esta actuación privada está siendo impulsada por el Ayuntamiento porque supone una renovación de las infraestructuras de

agua, saneamiento, redes eléctricas y de comunicación fundamentales para el anillo que va desde el Puente de Bekolanda hasta los Sacramentinos, así como porque va a suponer un revulsivo para poner en movimiento el mercado de compra-venta de viviendas de segunda mano y la consecución de unos ingresos patrimoniales importantes para el Ayuntamiento, que deberán ser reinvertidos en materia de vivienda y equipamientos públicos.

Entre las acciones públicas y privadas descritas, así como con otras menores, como en el caso de los edificios incendiados en Goikokale, se dan todos los factores necesarios para favorecer un incremento de la población de Areatza, con la consiguiente repercusión en los diferentes sectores sociales y económicos, como por ejemplo en los servicios públicos, la escuela, las infraestructuras y el comercio local.



LABURREAN

- Areatzan izugarritzko arazoa dago etxebizitzaren arloan. Eskeintza gutxi eta eskaera handia dago herrian.
- Arazo hau konpontzeko ekintza publikoak eta pribatuak guztiz beharrezkoak dira.
- Arauak egokituz 220 etxebizitza gehiago egongo dira. Berehala 12 etxe emango dira eta hoietatik 6 Udalaren esku geratuko dira alokatzeko.
- Aurrera eroango diren ekintza guztiekaz Areatzako bizilagunen kopurua handitzea espero da. Horrek herriko arlo guztiak eraginduko dauz: sozialak, kulturalak eta ekonomikoak.

Eusebio Larrazabal, Zeanuriko Alkatea

“Batera egin behar dana egiten ahalengintzen gara”

Areatzako auzokide berezienetariko bat da Zeanuri. Mila eta berrehun gutxi gora beherako biztanleko herri eder hau beti dago prest laguntza eskeintzeko. Alkateagaz berba egin dogu eta, bere ustez, herrien aberastasuna bakoitzaren ezberdinetasunean dago.

Zelakoak dira Areatza eta Zeanuritarren arteko harremanak?

Alde batetik, auzokoen arteko egoten diren betiko “pikeak” eta adarra-jotzeak dagoz. Bestetik, eta serioago, harreman oso onak dagoz. Herritarren arteko hartu-emoiak oso zabalak dira. Kolaborazio arloak ere asko dira, eskola, guraso-elkarteak, jubilatuen elkarteak, hau da, parte hartu behar diren gizar-teko gauza guztietan. Erlazio instituzionala ere oso ona da.

Ze proiektu dagoz, gaur egun, udal bien artean?

Areatza, Zeanuri, Arantzazu eta Artea udalen artean industrialde bat sortzeko proiektua dago Artearen lurretan.

Beste proiektu bat ere bueltak darabilgu, Areatzagaz lurralde batzuen trukaketa

pausu hori beharrezkoa dela, lur hoietako bizilagunek Areatzan daukatelako bizi-modua. Hirugarren asmo bat ere badago, Areatza eta Zeanuri arteko bidea ibilbide eta pasealeku batetan bihurtzea. Proiektu hauetatik aparte, beste batzuk daukaguz Mankomunitateagaz.

Zelakoa da zuelako Udal baten papera Mankomunitatearen barruan?

Mankomunitatea bere egunean sortu zan denoi gauzak egiteko aukera emateko, bakarrik egitea posiblea ez zana gauzatzeko. Hortik aurrera, herriek hazten joan dira eta gaur eguneko eskakizunak ez dira ordukoak. Nire ustez, herrietara itzuli behar dira zerbitzu batzuk eta sortu diren beste betebeharrak mankomunitatera pasatu. Hau da, mankomuni-



Eusebio Larrazabal

eduki, harreman pertsonalak gure artean oso onak dirala eta hori guztiz garrantzitsua da.

Zer dago bi herriek elkarrekin egiteko oraindik?

Gu behar dan guztia egiteko prest gagoz. Hori une bakoitzeko betebeharren arabera doa. Areatzak zeozer behar badau gure herri-tik ba hor egongo gara entzuteko eta aztertzeke gaia. Eta uste dot alderantziz ere horrela izango dala. Batera egin behar dana egiten ahalengintzen gara.

Alboko herriekaz hobeto konpontzen zarete?

Mankomunitate guztiko

herriekaz harreman onak daukaguz. Baina beti sortzen da nolabaiteko eztabaida eta bakoitzak berea defendatzen dau. Ikuspegi danak errespetatu behar dira eta nortasun guztiak onartu behar dira. Beti konpondu doguz eztabaida hoiiek, bai alboko herriekaz edo urrunago dagozanakaz. Eta ez dauka zer ikusirik alderdi politiko berdinekoak izateak edo ez harreman onak edukitzeko, gure kasuan gertatzen dan moduan. Dana dala, oso komenigarria izaten da albo-koekaz ondo konpontzea, bestela elkarlana ezinezkoa izaten da.

La riqueza de un pueblo reside en sus diferencias, en su identidad

Siempre estamos dispuestos a ayudar en lo que nos propongan

egiteko, baina orainik ez dogu lortu gehiengo udal-letxetan aurrera eramateko asmo hau. Baina denboragaz, eta logikaren bidez, jendea konturatuko da

tatea mantendu egin behar da, baina egokitu ere bai gaur egungo betebeharren arabera. Esan behar da ere, nahiz eta hainbat herri izan eta ikuspegi ezberdinak

Jasangarritasunaren osagaiak herrietan

Europako Batasunak jasangarritasuna bultzatzeko ekimenen proposatu dau udalerriek ingurumena, ekonomia eta gizartea alkarlotzen dituen adierazle batzuk kuantifikatzea.

Bizkaiko udalerrri gehienek bat egin dabe ekimen honeguz eta gogor ekin deus "Bizkaiko Udalerrietako Jasangarritasun Adierazleen Sistema" definitu eta aukatzeari. Sistema honek, Europako 10 adierazleetatik 8 hartzeaz gainera, Bizkaiko udalerrietako errealidadearen berariazko Jasangarritasun Adierazleak integratzen ditu, esate baterako: natur baliabideak eta ondasunak modu eraginkor eta arrazionalen erabiltea; inguruak daukan karga gaitasuna eta berreskuratze gaitasuna ez gaintzea; natur inguruaren biodibertsitatea ezagutu, baloratu eta jagotea; inguruaren errespetatuz mugikortasuna eta oinarritzko zerbitzu eta espazio libreetarako akzesibilitatea bermatzea; lurraren erabilera orekatuan oinarritutako udal antolamendu eta planeamendua bultzatzea; ekonomiaren dibertsifikazioa bultzatzeko eta lekuko baliabideak erabilteko ahalegina egitea; gizarte bidezko era zuzena, kohesionatua eta integratzailea bultzatzea; gizartearen inplikazioa eta parte-hartzea bilatzea eta informazioa eskaintzea; udal kudeaketa dinamikoa, ulergarria eta eraginkorra bultzatzea; eta arazo globalen

aurrean belaunaldien arteko alkartasuna sustatzea.

Bizkaiko Udalerrietako Jasangarritasun Adierazleen Sistemak Europako Batzordeak proposatutako zortzi adierazle ditu; bestetik, Bizkaiko udalerrri guztiek amankomunean dituzten 13 adierazle ditu, bai eta beste 9 be, udalerrri bakoitxaren tipologiari jagokezanak:

Europakoak

- Garraio moduak eta batez besteko distantziak.
- Udalerriko oinarritzko zerbitzuetara eta berdeguneetara oinez sar daitekezan herritarren portzentajeak.
- Udalerrian urte bakoitxean "onak" edo "oso onak" diran egunen kopurua, Airearen Kalitate Indizearen arabera.

Amankomunean

Ingurumenaren arlokoak:

- Udalerriko ur kontsumoa eta sektoreak (etxekoa, industrialak, komertzialak, udalarena eta sarearen ur-galtzeak).
- Udalerrian sortzen diran etxeko hondakinak sektoreka, emoten jaken tratamendua.
- Udalerriarren energia kontsumoa eta sektoreka.
- Udalerrian urbanizatu barik eta erabilera eta gestiorako plan baten bidez araututa dagoan lurraren portzentajea.
- Urbanizatu ezin daiteken



Adierazleen bidez leku lekuko jasangarritasuna neurtzen da.

- lurraren eta hiri lurraren portzentajea erabileren arabera (denboran zehar izandako bilakaera).
- Udalerrian dagozan etxebizitza guztiak kontuan hartuta, etxebizitza nagusien, bigarren mailako eta okupatu bakoien portzentajea.

Sozio-ekonomia arlokoak:

- Udalerrian dagozan enpresak.
- Udalerriko biztanle aktiboak (okupatuak eta langabetuak).
- Udalerriarren tamainua biztanleen arabera.

- Euskaldunen portzentajea eta udalerriak euskerara bultzatu eta normalizatzeko daukan aurrekontua.
- Gizarte Ongizateko Zerbitzuek lagundutako pertsona kopuruaren portzentajea eta kasuistika.
- Udalerrian alkarteetan dagozan herritarren portzentajea eta udalaren herri informaziorako bideak.
- Udalak Garapenerako Laguntzara zuzendutako aurrekontuaren portzentajea eta beronen kudeaketa.

RECOCGE TU RECICUBO

Para ayudarte en el reciclado de los residuos domésticos, el Ayuntamiento de Areatza pone a tu disposición estos prácticos cubos que podrás recoger gratuitamente en el Ayuntamiento en horario de oficina.



BUZON VERDE AGENDA LOCAL 21

Para recoger tus opiniones y tus ideas en estos temas, ponemos a tu disposición el Buzón Verde AL21. Envía todo lo que quieras aportar a la siguiente dirección:

areatzalantzen@hotmail.com

Areatza Lantzen aldirakaria. • Areatzako Udala. Gudarien plaza, 7. 48143 Areatza.



Karmentxu Amuriza, Odoloste egilea

“Erakutsi nahi dot emakumeok nahi dogun guztia egiteko prest gagozala”

Arratia osoan eta Bizkaiko hainbat herrietan ospetsuak dira Karmentxu Amurizak eta bere taldeak egiten dabean odolosteak. Eta oso ezaguna da ere andra jator honen izaera. Erabateko nortasunagaz, emakumeek gizartean daukaten paper baliotsua aldarrikatzen dau. Ez dauka astirik nahi dauan guztia egiteko, baina berantzako, zapatu-domekak sakratuak dira, baita bere pasioak ere: aerobic-a eta “Operación Triunfo”ko Ainhoa galdakaotarra.

Zelakoa da Karmentxun egun bat ?

Astean zehar, goizeko 6etan jeikitzen naiz. Ondo gosalduta eta odolosteak egiten hasten naiz. Hala eta guzti, etxeko lanak nik egiten dodaz, janaria prestatu, dena, ez naiz lotzen egun osoan. 14 ordu egiten dot lan normalean. Baina asteburuak niretzako bakarrik dira. Pasatzen jatana da ez daukadala asti nahikorik gura dodan guztia egiteko: irakurri, aerobic, lagunekaz solasaldian egon...

Zelan hasi zinen odolosteak egiten?

Ba ia konturaturik gabe. Etxerako egiten hasi nintzan. Asko gustatu jakezan eta

Baina leku eta pertsona bakotzak bere “tokea” emoten deitso.

Zertan oinarritzen zara odoloste arrakastatsu bat egiteko?

Odoloste bat ona izateko kalitatezkoa izan behar da. Gure enpresan, Iraitetik Maiatzara egiten doguz bakarrik, osagaiak, porrua eta kipula gorria adibidez, bere garaian daudelako. Txarriaren heste naturala erabiltzen dogu odolostea ez apurtzeko egositzerakoan. Osasun eta albatari kontrol eta azterketa guztiak pasatzen doguz. Gure produktuek lehengai hoberenak bakarrik erabiltzen doguz.

Gizonaren menpe ez egotea funtzezkoa da emakumeontzat.

lagunak enkarguak egiten hasi ziren. Orduan era profesionalean jartzea erabaki nuen eta hemen gagoz 1999tik.

Zelan ikasi dozu?

Odolosteak egiten Euskadiko odoloste-egile onenak irakatsi eustan, Rosario Sagarna, Areatzako alkatearen amak.

Merkatua zelan dago?

Euroak partikaran kalte handia egin dau. Dana dala, gure bezeroak oso onak eta leialak dira. Badakite produktu berezi eta mimatu bat erosten dabela, guztiz artesanala. Ez daroa kontserbanterik ez gehigarrik. Dana pertsonalki egiten da, elaborazioa,



Karmentxu Amuriza bere etxean odoloste sorta eder bategaz.

banaketa...eta jendeak hori eskertzen dau.

Lehiaketetara joaten al zara?

Batzuetan parte hartu nuen. Baina desilusio bat suposatu dau niretzat fidagarriak ez direlako, nahiz eta salbuespenak egon. Lehiaketak ez deuskue lagundu saltzen doguna baino gehiago saltzen. Odolosteak eta “martintxuak” eskuetatik kentzen deuskuez. Guretzako esanguragarritsuagoa da Corte Inglesekoak egin deuskuen deia gure odolosteak euren Delicatessenean saltzeko.

Zein da era egokia odolostea prestatzeko?

Aluminiozko paperan sartuta frigorifikoan bost egun arte egon ahal dira. Jateko, hobereana, ontzi batean odolostea sartu eta uragaz tapatu, gatz apur bategaz, eta berotu, ez inoiz egosi! Frijituta ere gozo-gozo egoten da.

Eta hemendik aurrera, zer?

Ba lanean jarraitu. Baina loteria tokatzen bajat, nire ametsa egingo dot: obra-dore bat egin aintzinako baserri baten itxuragaz, polit-polit prestatuta, hamar andra hartu (andrak izatez langile amorratuak gara, ze erre-medio!) eta odolosteak egin.

Emakumeen papera defendatzen dozu. Asko aldatu da paper hori?

Bai, aldakuntza asko egon dira hoberako. Niretzako, emakumeak independentzi ekonomikoa edukitea eta gizonaren menpe ez egotea funtzezkoa da. Erakutsi nahi dot, emakumeok nahi dogun guztia egiteko prest gagozala eta gizonaren paperaren azpian ez garala egon behar. Esaten da “Jaungoikoak, gizonari indarra emon euston eta emakumeari zuhurtasuna”.

El informe ha sido elaborado por la becaria del Master de Urbanismo de EVETU

El Registro Municipal de Solares

Isabel Gorriti

En la actualidad, uno de los problemas con que se encuentra este Ayuntamiento para la regeneración del Casco Histórico es la existencia de edificaciones ruinosas y solares aptos para edificar, y que por diversos motivos los propietarios no se deciden a edificar ni a vender. El Ayuntamiento pretende regular la utilización del suelo de acuerdo con el interés general para impedir la especulación del mismo, tratando de que la iniciativa privada cumpla con los plazos y deberes establecidos en el planteamiento municipal y en la normativa urbanística.

Por estos motivos, el Ayuntamiento de Areatza acordó en Pleno Municipal la creación del Registro Municipal de Solares. Este registro es un mecanismo legal para animar a los propietarios de terrenos a construir o a vender ante el riesgo de expropiación. Cuando los propietarios de los edificios en



Mediante el Registro de Solares se quiere animar a los propietarios a construir o a vender.

promete a edificar en unos plazos determinados.

¿Cuáles son los plazos que tienen los propietarios para emprender las edificaciones?

■ En las fincas en que existan construcciones paralizadas, ruinosas, derruidas o inadecuadas al lugar en que radiquen, el Ayuntamiento, previo el

plazo de dos años, desde que la parcela adquiera la condición de solar, y ejecutarla en los plazos que señale la licencia. Pasado este tiempo, el Ayuntamiento podrá expropiar o iniciar el correspondiente expediente de inclusión en el Registro de Solares para su posterior venta forzosa. Cuando una finca o solar se incluye en el Registro de Solares se determina también su justiprecio, que será la cantidad a percibir por los propietarios de los mismos cuando el bien salga de su

patrimonio por expropiación, venta forzosa o subasta pública.

El Registro de Solares es un registro público, teniendo derecho cualquier persona a que se le manifiesten los libros o a obtener certificación del contenido de los mismos. Cuando un solar o edificación se encuentre en situación de venta forzosa cualquier persona podrá solicitar al Ayuntamiento que se le adjudique, para lo cual, el adquirente tendrá que abonar el justiprecio y comprometerse a edificar o a rehabilitar en unos plazos establecidos.

Tresna hau ezarriz lurren eta etxeen salerostea eragindu nahi da

ruina o de solares no cumplen con su obligación de construir en los plazos correspondientes, ni venden para que otros construyan, el Ayuntamiento tiene la posibilidad de expropiarlos para construir viviendas o de incluirlos en el Registro Municipal de Solares para su posterior venta forzosa. Este tipo de venta funcionaría como una expropiación en beneficio de una persona física o jurídica que se com-

expediente de declaración de ruina, certificará la inclusión de esa finca en el Registro de Solares. A partir de esa inclusión, deberán pasar dos años sin que el propietario emprenda la edificación para que el Ayuntamiento expropie o inicie el expediente de venta forzosa.

■ En los solares, los propietarios deberán solicitar la licencia de edificación en

Becaria en Areatza

Recientemente, el Ayuntamiento de Areatza ha contado con la colaboración de Isabel Gorriti, becaria proveniente de la Escuela Vasca de Estudios Territoriales y Urbanos (EVETU), con motivo de la realización del Master de Urbanismo, y Agente de la Propiedad Inmobiliaria. En los 2 meses que ha durado su beca, ha trabajado en el Registro de Solares y se ha encargado de elaborar un borrador de ordenanzas dentro de ese ámbito.

Musikagaz leku eta ertz guztietara

Herrialde guztian oso ezaguna da Arratiako Musika Eskola. Aspalditik dator Areatzako "maitasuna" musikagaz eta maitasun hori gero eta handiago eta zabala goa da Arratia osoan eskola horretatik urtero irteten diren hainbat musikariei esker. Musikaren irakaskuntzak eta ikaskuntzak kulturaren arlora hurbiltzen gaitu, beraz ez da ahaztu behar musika eskolen garrantzia gure gizartean.

Arratiako Musika Eskolako arduradunek joandako ikasurteko balantzea egiterakoan, aurtengo matrikulazioak, beste urteekaz konparatuz, gora egin dabezala ikusi dabe. 247 ikasle egon dira eta guztira 147 ikastordu astero euki dabez 2001eko irailaren 10etik 2002ko ekainaren 23arte, 175 eskola-egunakaz. Berrikuntzen artean azpimarratu behar dira Biolontxelo ikasketak zabaldu egin dirala, eta Bibolin eta Flautaren ikasleak Euskal Herriko Musika Eskolen elkarteko orkestetan parte hartu dabela.

Beste herrialdeetako musikariak ere hemendik ibili dira, Musika Eskolaren eskutik, adibidez "Castellers d'Esparraguera" eta "Eurocamerata" taldeen kontzertuak eskainiz. Bestaldetik, Txistu Talde Instrumentalaren ikasleak Suizara joan


dira Europako Musikalari Gazteen Jaialdira eta Txistu eta Trikitixa ikasleak Frantziako St. Laurent de Nesten izandako audizioetara.

Arratian zehar ere Musika Eskolako hainbat ekintza egon dira, Galdakaoko Máximo Moreno Musika Eskolagaz egindako trukea, Igorreko "Luis Iruarizaga" koruagaz izandako kontzertua edota Areatzako Bandagaz emondako kontzertuak.

Arratiako Musika Eskolan irakasleak bere prestakuntza ere zaintzen dabe. Urtean zehar, hainbat irakasle ikastaro ezberdinetara joaten dira bere lanak gero eta kalitate gehiago edukitzeko eta kontzertuak zabal eta sakonago irakasteko. Beraz, musikaren irakaskuntza Arratiako Musika Eskola XXI. mendeko musikariak prestatzeko egokituta dago jadanik.



Areatzako Musika Eskolako Banda




IKASGAIK

- 1. Maila (tailerra).
- Hizkuntza musikala.
- Korua.
- Talde instrumentala.
- Analisia.
- Akordeoia.
- Txistua.
- Tronpeta.
- Bibolina.
- Trikitixa.
- Pianoa.
- Bonbardinoa.
- Saxoa.
- Flauta.
- Perkusioa.
- Panderoa.
- Bilontxelo.
- Gitarra.



Matrikula eta ikasle kopurua urteetan zehar



Laburrak • Breves

Derribo de edificios

Respecto a las noticias aparecidas en algún medio de comunicación relativas a la apertura de un expediente al Ayuntamiento de Areatza por el derribo de varios edificios protegidos en Goikokale, el Ayuntamiento quiere decir que, tras los informes técnicos oportunos y la declaración de ruina inminente, acordó la demolición de los edificios afectados por un incendio en octubre de 2000. Además de por la propia estabilidad de la estructura de los edificios, estrictas razones de seguridad de los edificios colindantes y la necesidad de la apertura de la calle aconsejaban la demolición de los mismos. Todo ello se hizo a la vista de los informes técnicos mencionados y con el visto bueno de todos los propietarios, no existiendo hasta

la fecha reclamación alguna por estas actuaciones.

Nueva depuradora

Próximamente va a instalarse un nuevo módulo en la Estación Depuradora de Areatza, lo que permitirá duplicar el volumen de agua potable disponible y adecuarse para el abastecimiento de, incluso, el triple de la población de la Villa. Este nuevo módulo, cuyo presupuesto de 151.000 € está financiado íntegramente por el Consorcio de Aguas, es de última generación y está diseñado para racionalizar adecuadamente el consumo de agua y para garantizar su calidad y cantidad.

2003ko aurrekontua

2003ko udal aurrekontua bi milloio t'erdi euro inguruan

egongo da. Dena dela, udaleko arduradunak oraindik lanean ari dira berehala onartzeko aurrekontu hori. Diru kopuru horretatik, %75a inbertsio ezberdinetarako emango da. Areatza Arratian bere aurrekontua onartuko dauan lehen udala izango da.

Nueva Cubierta

Ante el progresivo deterioro de la cubierta del Ayuntamiento, se ha procedido a su impermeabilización y reparación general, cuya última reforma data de 1985. Las obras realizadas están requiriendo un trabajo especializado debido a las grandes dimensiones de la cubierta del Ayuntamiento de Areatza.

El presupuesto de esta rehabilitación asciende a unos 110.000 €, de los cuales el 75% ha sido financiado por la Diputación Foral de Bizkaia.

KZgunea badator

Areatzak, Zeanurik eta Arteak Eusko Jaurlaritzagaz akordio bat sinatu dabe, Euskadi Informazioaren Gizartean Plangintzaren barnean, KZgune bat ezartzeko. Kanpaina honi esker, gizarte osoari aukera emoten jake Interneten munduan sartzeko eta gaur egun hain beharrezkoak diren tresna informatikoak ikasteko. Erabiltzailea edonor izan ahal da: etxeko andrak, 3. adinekoak, langabeak, hau da, normalean ordenagailuen arlora heltzeko aukerarik ez daukana. KZgunea Areatzako Liburutegian kokatuta egongo da

datorren udaberrirako.

Euskal jaialdiak

Fiestas Euskaras: La Fundación Sabino Arana y el Ayuntamiento de Areatza editaron conjuntamente "Fiestas Euskaras", un interesante libro en el que se recogen los actos de las fiestas euskaras que se celebraron en la Villa hace más de 100 años. Esta publicación está a disposición de todos los interesados en la Biblioteca de Areatza, donde podrán recoger su ejemplar gratuitamente y en horario de atención al público. La petición del libro también puede realizarse a través del correo electrónico en la dirección: areatzalantzen@hotmail.com.



Río Arratia

El 3 de Enero se publicó en el Boletín Oficial del País vasco la resolución por la cual el Viceconsejero de Medio Ambiente acuerda someter a información pública el proyecto y estudio de impacto ambiental de las obras de acondicionamiento del Río Arratia en Areatza. El trámite de información pública durará 30 días desde la fecha de publicación de dicha resolución, plazo en el que podrán presentarse las alegaciones oportunas.

Kontzertu solidarioa

Urtero bezala, joandako Abenduaren 30ean, Gabon-Zaharreko Kontzertua ospatu zan San Bartolome eleizan. Arratiako Musika Eskolako Musika Banda, Jabier Ituarteren zuzendaritzapean, eta Areatzako Musika Banda, Ruper Lekuek zuzenduta, parte hartu eben kalitate handia erakutsiz eta izugarrizko arrakasta lortuz. Kontzertu hau klasiko bihurtu da.

Aurten, Galiziaren aldeko omenaldia prestatu zan, pasodoble galiziar bat interpretatuz. Hemendik ere gure elkartasun beroena adierazi nahi deusagu galiziar herriari.

NUNCA MAIS!





OSAGAIAK:

- Arratiako barraskiloak
- Kinpula gorri eta zurie
- Berakatza
- Piper txorizeroa
- Pernile
- Solomoa
- Txorizoa
- Okel birrindua
- Orioa
- Gatza
- Tomatea
- Gindillea
- Arraultz egosie

Barraskiloen garbiketa:

Iturriaren azpian ipini eta barraskiloak ondo garbitu. Lapiko handi bat uregaz bete eta gatza bota eta bertan barraskiloak egosi (pauzu hau 3 bider egin). Barraskiloak banan-banan hartu eta barruko okelea atera eta garbitu iturriaren azpian eta gero berriz sartu okela hori barraskiloaren barruan.

Barraskiloentzako saltsa:

Sartan haundi baten orioagaz

berakatza eta kinpule gorrie eta zurie astiro-astiro frijitu. Gero, tomatea eta piper txorizeroen pulpea sartanera bota. Beste sartan batetan, txorizoa, solomoa, okela birrindua eta pernile frijituko doguz. Tomatearekin egindako saltsa hau "txinotik" pasauko dogu. Azkenik, dana lapiko haundi batera botako dogu: saltsa, okel frijidura, gindillea, arraultz egosie eta barraskiloak.

Leonardo Zuloaga



Bidali zure errezetak •
Envíanos tus recetas

Areatza Lantzen aldizkaria.
Areatzako Udala. Gudarién
plaza, 7. • 48143 e-mail:
areatzalantzen@hotmail.com

HISTORIA DE LA FONDA DE MARIA CRUZ



A finales del siglo XIX en la plaza de Areatza, enfrente de la fuente del Aska, había un caserío viejo con taberna cuyos propietarios eran Nicomedes Ortiz de Zarate y su esposa María Cruz Maguregui Altuna. Este matrimonio vivía en Zubizarra y la taberna la regentaba otro matrimonio formado por Anacleto Urquijo y Pepita Eguia Maguregui, sobrina de María Cruz.

El 17 de marzo de 1902 murió Nicomedes dejando a María Cruz viuda y huérfanos a sus dos hijos: Jerónimo y Ricardo.

Dos o tres años más tarde, María Cruz hacía derribar el caserío-taberna para construir una nueva edificación de cuatro plantas.

Mientras tanto, sus sobrinos Anacleto y Pepita trasladaron con carácter provisional su taberna a lo que luego fue la zapatería-barbería de Jesús Gorostiaga.

Al terminarse las obras de la nueva casa la taberna volvió a su lugar de origen enfrente del Aska.

Una construcción nueva como era aquella requería una ornamentación adecuada y Anacleto aprovechó la remodelación del Café Suizo de Vitoria para adquirir una serie de objetos que fueron durante años admirados por su valor y elegancia: del Café Suizo se trajeron unos hermosos divanes, un piano, unas mesas de juego, cortinones... que le daban al lugar un aspecto elegante y acogedor.

Algún tiempo más tarde, a Anacleto le surgió la oportunidad de ejercer como Secretario en el Ayuntamiento de Ramales (Cantabria) así que, junto con Pepita y sus hijos, dejaron Areatza y su taberna y se mudaron a esta localidad cercana a Lanestosa. María

Cruz asumió entonces la responsabilidad del negocio: fonda, taberna, café; y desde entonces los veraneantes que llegaban a la localidad preguntaban por la fonda de María Cruz.

En 1913 se inauguró el batzoki en este lugar y el 18 de enero de 1917 María Cruz cedió el negocio al matrimonio recién formado por Melchor Fernández de Larrinoa Martínez de Alegría y Josefa Iturrate Ibarrodo, quienes años más tarde adquirieron también la casa. En el pacto de compraventa figuraba que María Cruz y su hijo Ricardo, para entonces enfermo paralítico, tendrían de atención completa por parte de los compradores para el resto de sus vidas. El pacto se cumplió como esta-

ba establecido y murió primero Ricardo, con 44 años de edad, tal como habían anticipado los médicos dadas las características de su enfermedad, y María Cruz dejó este mundo el 26 de febrero de 1948, cuando le faltaban 2 meses y 10 días para cumplir 91 años. Ambos murieron en lo que había sido su hogar durante muchos años: La Fonda de María Cruz.

Esta pequeña historia ha sido recogida el domingo 3 de noviembre de 2002 de las memorias de Eurne Fernández de Larrinoa Iturrate, nacida en esa casa, como primer fruto del matrimonio de Melchor y Josefa el día 1 de diciembre de 1917.

Concurso:

¿DÓNDE SE UBICABA LA FONDA DE MARIA CRUZ EN AREATZA?

Respuesta: En la plaza de Areatza, enfrente del Aska (antiguo Batzoki).

GANADORA de una estancia de fin de semana para dos personas en un agroturismo de la Red de Agroturismos del País Vasco:

MIREN SAGARNA